BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

# GIZARTE EKINTZAKO SAILAK KOMUNIKAZIO BIDEAK SUSTATU DITU ZUZENDARITZA ETA BASAURIKO BIZKOTXALDE EGOITZAKO ERABILTZAILEEN SENITARTEKOEN ARTEAN

- **Horrela ziurtatu du Sergio Murillok, Gizarte Ekintzako Sailburua, Bizkaiko Batzar Nagusien Batzordean, non egoiliarren senitartekoen kexak ezagutzera eman dituen.**

*(Bilbon, 2019ko gabonilaren 5ean).-* Basauriko Bizkotxalde egoitzako erabiltzaileen senitartekoek aurkeztutako kexak nagusitu dira Bizkaiko Batzar Nagusien Gizarte Ekintzako Batzordearen bileran. Sergio Murillo, Gizarte Ekintzako Sailburua, bertan agertu da, gai honen berri emateko, EH Bildu eta Alderdi Mistoa / PP Bizkaia alderdiek eskatuta.

Murillok adierazitakoaren arabera, senitartekoen kexa-idatziaren berri jaso bezain laster, Diputazioak bilerak antolatu zituen, sinatzaileen ordezkariekin zein Zuzendaritzarekin eta zaharren egoitza hau kudeatzen duen entitatearekin. Gizarte Ekintza Sailetik bitartekaritza lanak egin dira eta, dagoeneko, komunikazio bideak ezarri dira senitartekoen eta Bizkotxaldeko zuzendaritzaren artean.

Horrez gain, saileko Ikuskapen Zerbitzuak erabiltzaileen zenbait kexa aztertu du, eta garbiketa, pixoihal aldaketa eta erorketen protokoloak, langileen egonkortasuna eta zentroko bestelako zerbitzuak betetzen direla errebisatu du.

Diputatuak azaldu du, urte osoan zehar, ofizioz eta aurretik abisatu gabe, foru sareko zaharren zentro eta zerbitzu guztiak ikuskatzen direla eta, Sailetik, halaber, egoiliarren eta senitartekoen kexak eta salaketak ere ikuskatzen direla.

Bizkotxalde egoitzari dagokionez, 2017an 3 ikuskapen akta ireki ziren eta baita ikuskapen akta bat ofizioz ere, 2018an zein 2019an. Horietan guztietan ez zen inolako arau-hausterik atzeman. “Prozesuak bere horretan jarraitzen du eta ez dugu amaitutzat eman”, ondorioztatu du Murillok. Sailburuak adierazi du arratsaldean bertan bilera berri bat antolatuko dela, gai honetan aurrera egiten jarraitzeko.

Bestalde, Gizarte Ekintzako Sailburuak EH Bildu alderdiak ahoz egindako galdera bati erantzun zion, zaharren egoitzetako emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko protokoloei eta neurriei buruz, Barakaldoko Sanitas zentroko egoiliar batek jasandako sexu-abusuaren kasu bat ezagutu ondoren.

Murillok ziurtatu du zentroa bera izan zela kasua atzeman eta salatu zuena eta esan du, halaber, dagoeneko lanean ari direla sexu-abusuen kasuak ekiditeko protokolo bat osatzeko prozesuan. Azken hura hurrengo urtean garatuko da, tratu txarren edo sexu-abusuaren kasuak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloak finkatzen dituen 126/2019 Dekretua betearazteko.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# EL DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL IMPULSA CANALES DE COMUNICACIÓN ENTRE DIRECCIÓN Y FAMILIARES DE PERSONAS USUARIAS DE LA RESIDENCIA BIZKOTXALDE DE BASAURI

- **Así lo ha asegurado Sergio Murillo, Diputado de Acción Social, que ha comparecido ante la Comisión de las Juntas Generales de Bizkaia para informar sobre las quejas de familiares de residentes.**

*(Bilbao, a 5 de diciembre de 2019).-* Las quejas de familiares de personas usuarias de la residencia Bizkotxalde de Basauri han centrado la reunión de la Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia. Sergio Murillo, Diputado de Acción Social, ha comparecido para dar cuenta de este asunto, a petición de EH Bildu y Grupo Mixto / PP Bizkaia.

Según ha explicado Murillo, en cuanto se tuvo conocimiento del escrito de queja de familiares, la Diputación impulsó reuniones tanto con representantes de las personas firmantes como con la Dirección y la entidad gestora de esta residencia para personas mayores. Desde el Departamento de Acción Social se ha mediado y se han establecido ya canales de comunicación entre familiares y dirección de Bizkotxalde.

Además, el Servicio de Inspección del departamento ha analizado algunas de las quejas de los usuarios, revisando el cumplimento de los protocolos de aseo, cambio de pañal, caídas, estabilidad de la plantilla y otros servicios del centro.

El Diputado ha explicado que durante todo el año se inspeccionan de oficio y sin aviso previo todos los centros y servicios a personas mayores de la red foral y además desde el Departamento se inspeccionan las quejas y denuncias de residentes y familiares.

En el caso de Bizkotxalde, en 2017 se abrieron 3 actas de inspección así como un acta de inspección de oficio tanto en 2018 como en 2019, no detectándose en ninguna de ellas incumplimento alguno. “El proceso sigue vivo y no lo damos por cerrado”, ha concluido Murillo, quien ha apuntado que esta misma tarde hay una nueva reunión para seguir avanzando en este asunto.

Por otro lado, el Diputado de Acción Social ha respondido a una pregunta oral de EH Bildu sobre protocolos y medidas para prevenir la violencia contra las mujeres en las residencias de personas mayores, tras conocerse un caso de abuso sexual a una residente del centro Sanitas de Barakaldo.

Murillo ha asegurado que fue el propio centro el que detectó el caso y lo denunció y ha añadido que ya están trabajando en la elaboración de un protocolo para evitar casos de abuso sexual, que estará desarrollado el próximo año para dar cumplimiento al Decreto 126/2019 que fija protocolos para prevenir y actuar frente a casos de maltrato o abuso sexual.